

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Onestea 2025-2026 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea

Udalbatzak, 2025eko ekainaren 10ean egindako bilkura berezian, hau erabaki zuen:

Lehenengoa: Onespena ematea Legutioko Udalaren 2025-2026 ekitaldietarako dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzeari. Honako hau dio, hitzez hitz (espedientean dagoen eranskinarekin batera):

2025 eta 2026 ekitaldietarako dirulaguntzen plan estrategikoa

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 8. artikuluan, "Printzipio orokorrak" izenburupean honako hau dio: "Administrazioko organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta ondorioak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantziazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea".

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Arautegiaren 10. artikulutik 15. artikulura bitartekoek garatu zuten 8. artikulua hori, plan estrategikoen printzipio gidariak, eremua eta edukia ezarrita, bai eta haiek onesteko esku-mena, planen jarraipena eta ez-betetzeen ondorioak ere, zeina, udalei aplikatu ezin bazaie ere, kontuan har daitezkeen alderdi batzuk jasotzen baititu.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Arautegiaren atariko tituluaren III. kapituluaren V. atala (10-15 artikulua). dirulaguntzen plan estrategikoak arautzen ditu.

DAOren 12.3 artikulua arabera, "Dirulaguntzen plan estrategikoek izaera programatikoa daukate eta haien edukiak ez du sortzen ez eskubiderik ez betebeharririk; haren eraginkortasuna baldintzaturik dago dirulaguntza ildoak abian jartzearen arabera, betiere, besteak beste, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu eskuragarritasunen baldintzatzaileei men eginez."

Aurrekoan oinarrituta, planaren edukiak aurrekontuaren hasierako kredituetan jasotzen diren dirulaguntza lerroak gutxi gorabehera zein diren baino ez du jasotzen, eta dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak ez ditu inola ere lotzen lerro berriak irekitzearekin edo aurreikusitakoen benetako deialdia ez egitearekin, inguruabarrak zein diren, betiere dagozkion aurrekontu esleipenen eta aurrekontu egonkortasunaren mende.

Bestalde, DAOren 14. artikulua dio: "urtero eguneratuko dira planak, eskura dagoen informazio garrantzitsuaren arabera".

Urtero eguneratu beharra dagoenez, eta ekitaldi bakoitzeko aurrekontuarekin lotuta dagoenez, komenigarria da plan estrategikoa aurrekontuaren betearazpen oinarrien eranskin gisa sartzea. Betearazpen oinarriak Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 165. artikuluan daude araututa –martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen–. Bertan adierazten denez, "aurrekontu arloko xedapen orokorrak erakundearen beraren antolamendura eta inguruabarretara egokituko dira, bai eta egoki kudeatzeko beharrezkoak diren gainerakoak ere, eta egokitze edo komenigarritzat jotzen diren behar beste prebentzio ezarriko da, gastuak eta dirubilketa hobeto egiteko".

Plan estrategiko hori prestatu beharko da dirulaguntzak emateko edozein proposamen egin aurretik eta, halaber, udal dirulaguntzen plan estrategikoan jaso beharko dira planteatzen diren proposamenak.

Horregatik, Legutioko Udalak 2025etik 2026ra bitarteko aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi du, honako hauetan oinarrituta:

KLAUSULAK

Lehenengoa: Legutioko Udalak 2025-2026 aldian ematen dituen dirulaguntzek bete egingo dute dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorrean eta plan estrategiko honetan xedatutakoa.

Dirulaguntzak eman ahal izateko, urteko udal aurrekontuan esleipenak egin behar dira lehenengo, bai eta dirulaguntzak esleitzeko oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak onetsi ere.

Dirulaguntzak emateko baldintza da aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzea. Hortaz, onesten diren aurrekontu esleipenak eta dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak helburu horietara egokitu behar dira beti.

Dirulaguntzak eta zuzeneko emakidak (hitzarmenak) eman baino lehen, gastua onetsi beharko da, Legutioko Udalaren aurrekontu arauetan xedatutakoaren arabera.

Dirulaguntzak eman baino lehen, emakida arautzeko arauak edo oinarriak onetsi beharko dira.

Bigarrena: dirulaguntzen eta administrazio publikoen arloko erregulazio juridikoak zenbait jarduketa printzipio orokor ezartzen ditu; haiek guztiak plan estrategikoaren funtsezko elementuak dira eta dirulaguntzen arloko udal kudeaketa gidatu behar dute.

a) Publikotasuna eta lehia, aurretiazko deialdia dela medio, zeinetan bermatu beharko baitira lehia eta berdintasuna funts publikoen banaketan. Horrek guztiak ez du eragozten zuzeneko emakida egiterik, eta horretarako, aplikagarria den arauan xedatutakoarekin bat etorriz, behar den aurrekontu eskuragarritasuna egon beharko da aldez aurretik.

b) Objektibotasuna funts publikoak esleitzeko prozesuan.

c) Berdintasuna eta diskriminaziorik eza herritarren artean, sektoreen artean eta kolektiboen artean.

d) Gardentasuna baliabide publikoak esleitzeko prozesuan, bai emateko prozesuan, bai emaitzak argitaratzean.

e) Emandako dirulaguntzen jarraipen eta kontrol prozedura bat ezartzean zehaztutako helburuak betetzeko efikazia.

f) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia, dirulaguntzak baloratuz eta proiektu efizienteenei esleitzuz.

Udalak dirulaguntzak emango dizkie onura publikoko edo gizarte intereseko jarduerak edo udal eskumeneko xede publikoak lortzera bideratutako jarduerak sustatzen dituzten pertsona eta erakunde pribatuei.

Hirugarrena: honako hauek dira plan estrategiko honetan jasotako jarduketa ildo estrategikoak, zeinak barnean hartzen baititu udalaren eta haren erakundearen dirulaguntza lerroak:

Gizarte ekintza

Helburu estrategikoa:

Herritar guztiei bizi kalitatea hobetzeko aukera ematea, premia egoeretan edo gizarte bazterkeriako arrisku egoeretan.

Helburu zehatzak:

Eguneko Arretarako Landa Zentroaren mantentze gastuak eta hura erabiltzen duten herritarren gastuak diruz laguntzea, oinarritzko gizarte zerbitzuak gizarte eta familia egoera baloratu ondoren.

Egoitza finkorik ez duten eta udalerrian iragaitzaz dauden pertsonei janaria edo autobus txartela ematea.

Garazi Ikastolari dirulaguntza ematea gizarte bazterkeriako arriskuan dauden ikastetxeko ikasleen barnetegiaren kostu partzialerako.

Kultura

Helburu estrategikoa:

Tokiko kultura jarduerari eusten laguntzea.

Helburu zehatzak:

Udalerrian dauden kultura elkarte askotarikoekin lankidetzan aritzea, kultura jarduerak garatzeko eta herritarren parte hartzea hobetzeko.

Kirolak

Helburu estrategikoa:

Herritar guztiei beren kirol eskaerak asetzeko aukera ematea eta kirola egiteko modu osasungarria sustatzea, bizi kalitatea hobetzeko bitarteko gisa.

Helburu zehatzak:

Udalerriko kirol elkarteekin lankidetzan aritzea, jarduerak garatzeko eta herritarren parte hartzea hobetzeko.

Oinarrizko kirolaren sustapena sustatzea.

Arabako bolo tradizionalen egitea sustatzea.

Hezkuntza

Helburu estrategikoa:

Lankidetzan aritzea bazterkeria arriskuan dauden pertsonen prestakuntza ez-arautuarekin.

Helburu zehatzak:

Prestakuntza ematen den herrietarako joan-etorriak erraztea, oinarrizko gizarte zerbitzuak balorazioa egin ondoren.

Euskara

Helburu estrategikoa:

Euskararen erabilera eta ezagutza sustatzea.

Helburu zehatzak:

Euskararen ezagutza erraztea, euskaltegiaren prestakuntzaren bidez.

Euskararen aldeko jaiak edo ekitaldiak antolatzen laguntzea.

Udalerriko administrazio batzarrak

Helburu estrategikoa:

Lankidetzan aritzea administrazio batzarrekin, bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko.

Helburu zehatzak:

Administrazio batzarraren gastu arruntei aurre egiteko ekarpen orokorra.

Udalerriko herrietan inbertsioak egiteko laguntza.

Ingurumena

Helburu estrategikoa:

Etxeokak ez diren animaliak babesten laguntzea.

Helburu zehatzak:

Katu multzoen kudeaketa bermatzea.

Laugarrena: Legutioko Udalak ematen dituen dirulaguntzak funts propioekin finantzatuko dira, kasuan kasuko ekitaldietako udal gastuen aurrekontuetako IV. eta VII. kapituluaren kontura.

Plan honetan jasotakoak betetzeko ekitaldi bakoitzerako aurreikusten diren kostuak dagokion urteko aurrekontuan zehaztu behar dira.

Legutioko Udalak ematen dituen dirulaguntza mota guztietarako, jarduketak gauzatzeko epea urtebetekoa izango da oro har. Dena dela, denboran finkatzen diren jarduerak edo urteko ekitaldia baino epe luzeagoa behar duten jarduerak ere izan daitezke. Halakoetan, ordenantzak ezartzen dituen baldintzak urtez urte betetzen jarraitu beharko dute.

Bosgarrena: urtero, udalaren dirulaguntza ekintzaren emaitzen laburpen objektibo bat jarriko da tokiko gobernu batzarraren eta ogasun batzordearen esku.

Udaleko Kontuhartzailetza Orokorrari dagokio diruz lagundutako jardueren finantza kontrola egitea. Horretarako, diruz lagundutako zenbatekoen ordainketen benetako datak aztertuko ditu, espediente bakoitzean jasotako datekin alderatuz; horrez gain, ordainbideak eta onuradun bakoitzari dirulaguntza lortzeko eskatu zitzaizkion baldintzak behar bezala justifikatu diren ere aztertuko du.

Kontuhartzailetza Orokorrak dirulaguntzen fiskalizazioa ahalbidetuko duten justifikazio ereduak egin ahal izango ditu.

Bigarrena: dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi ondoren, ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Legutio, 2025eko uztailaren 7a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTÁZAR